



# 2023ko TOLOSAKO SAN JOAN JAIETAKO BERDINTASUN BEHATOKIAREN EMAITZEN TXOSTENA

SAN JOANAK | 2023

# AURKIBIDEA

<b>1. AURKEZPENA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. KOKAPEN HISTORIKOA .....</b>	<b>4</b>
<b>3. LAN PROZEDURA.....</b>	<b>5</b>
<b>4. NOLA IRAKURRI DOKUMENTU HAU .....</b>	<b>6</b>
<b>5. KOMUNIKAZIOA .....</b>	<b>7</b>
<b>6. ANTOLAKUNTZA .....</b>	<b>15</b>
<b>7. EGITARAUA .....</b>	<b>17</b>
Sarrera.....	17
Txupinazoa .....	17
Musika ikuskizunak .....	20
Kiolak.....	28
<b>8. INDARKERIA .....</b>	<b>33</b>
<b>9. BALORAZIO OROKORRA .....</b>	<b>37</b>
<b>10.GEHIGARRIAK .....</b>	<b>38</b>

## 1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan **2023. urtean Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren analisia** azaltzen da. Aurreko urteetako lanketari jarraituz, San Joan jaien esparru anitzen genero-azterketa egin da, eman diren aurrerapausoei balioa emanez eta erronkak mahaigaineratuz.

Udal-teknikari eta -ordezkari politikoei zuzendutako dokumentua da, eta bereziki jaien lanketan eta Behatokiarekin harreman zuzena dutenei: Alkatetza, Jaiak, Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoak, Musika Eskola eta Komunikazio alorretako zinegotziak eta teknikariak. Ondoren, hemendik ateratako ondorioak<sup>1</sup> jaietan parte hartzen duten elkarteei, herri eragileei, eta oro har, herritarrei ere jakinarazten zaizkie; alde batetik, udal-webgunean Berdintasunak duen atalean txostena zintzilikatuta, eta bestetik, horren berri emanez.

Dokumentu honetan Behatokiaren lana bi norabidetan erakusten da: batetik, dagoeneko Tolosako Udalak berdintasunaren alde egiten duen lanari balioa ematen zaio, eta bestetik, lanketa honetan sakontzeko esku-hartze proposamenak azaltzen dira, ikuspegi estrategiko eta praktiko batetik. Gainera, hartzaila izango diren departamentuetako teknikariak eta politikariak sentsibilizatzeko bokazioa ere badu: gure jaietan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzearen inguruan oraindik ematen diren diskriminazio egoerak ezagutzeko, horien inguruan kontzientzia hartzeko eta neurriak hartzeko gaitasun gehiago izan dezaten.

Dokumentu honek ondorengo egitura du: lehendabizi, Behatokiaren inguruko kokapen historiko bat egiten da, azken urteetan izan duen eboluzioa azalduz; ondoren, lan-prozedura azaltzen da; Behatokiak aztertutako lau esparruak lantzen dira jarraian (komunikazioa, antolakuntza, egitaraua eta indarkeria sexista); eta azkenik, etorkizunera begira eman beharreko urratsak azaltzen dira, ondorio orokor moduan.

---

<sup>1</sup> Txosten hau eta orain arte egindakoak Tolosako Udalaren web orrian topatu ditzakezu: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jaiak-behatokia-eta-gida/jaiak-behatokia>

## 2. KOKAPEN HISTORIKOA

Tolosako Udalak 2010 urtetik darama jaietan berdintasun-ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2016. urtean, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen Berdintasun Departamentuaren lidergoarekin. Behatokiaren helburua berdintasun-politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu honetan udaleko hainbat udal-departamentuk parte hartzen dute neurri eta modu oso ezberdinetan.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hau azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna "bizia" bezala ulertu behar delako hau da momentuan momentuko jaietara eta Tolosar jendartera egokitu behar dena.

2017. urtean, Behatokia lehen aldiz martxan jarri zen. Urte horretan, diseinatutako eredua eta tresnen froga egitea planteatu zen, eta hemendik ateratako ikaspenetan oinarrituta, beharrezko hobekuntzak egin ahal izan ziren. Ondorioz, 2017an San Joan jaietan egindako lanketarekin Txosten bat egin zen.

2018an aurreko urteko ikaspenetan oinarrituta Behatokiak lanean jarraitu zuen, eta beste esparru batzuetara ireki zuen bere lanketa eta eragin markoa; hau da, Behatokia jaietako kirol-jarduerak txertatu zituen bere analisisan, baita Larramendiko jaiak ere.

2019an, COVIDaren ondorioz, Behatokiak urte horretan San Joan jaiak aztertu beharrean (ez ziren jaiak ospatu), Inauteriak aztertu zituen (horiek bai ospatu ziren). Beraz, lehenbiziko aldiz, Behatokiko analisisietan Inauteriak txertatu ziren. Pandemiaren iraupena eta eragina zirela eta, hurrengo bi urteetan ez ziren jaiak ospatu, eta Behatokiak jai berdinzaleetarako lehen plana osatu zuen 2020-2021ean; planak barne biltzen zituen 2021-2024 arteko ekintzak.

2022 urtean, berriz normaltasunez ospatu ziren San Joanak, eta Behatokiak haiei zegokien analisi lanari ekin ahal izan zion. Lehen aldiz, dokumentuan aurreko urteetako datuekin alderaketa bat egin zen, berdintasunaren esparruan ematen ari den eboluzioa ikusgarri egin ahal izateko.

2023. urtean, aurreko urteetako egitura berdina jarraitu da.

### 3. LAN PROZEDURA

*Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarri dokumentuan* horren funtzionamendu eredua eta tresnak azaltzen dira, eta horietatik abiatuta, beharrezko egokitzapenekin, 2023. urteko lanketa egin da. Bost faseko prozesua izan da.

Hauexek dira 5 faseak eta bakoitzean egindako lanketa:

- **Plangintza.** Lehendabiziko fase honetan, 2023ko San Joan jaietan aztertuko zenaren aurreikuspena egin zen.
- **Informazioa jaso.** Alde batetik, Berdintasuna, Jaiak, Komunikazioa, Udaltzaingoak, Gizarte Zerbitzuak eta Kirol Departamentuei beharrezkoa zen dokumentazioa eskatu zitzaizen (aktak, jardueretako partaideen zerrendak, egitaraua, diru-laguntzen fitxak...). Udal-arloez gain, herriko hainbat eragilarekin bildu eta hitz egiten zen haien esku zegoen informazioa eta jakintza eskuratzeko. Informazio bilketa eta koordinazioa kirol-arloko teknikariak izan ezik Berdintasun teknikariak ere egin zuen.
- **Analisia.** Informazio guztia eskuratu ondoren, analisia egin da.
- **Komunikazioa.** Ateratako emaitzak, alde batetik, parte hartu zuten arlo guztiekin partekatu zen, eta bestetik, udal-teknikari eta zinegotzi guztiak gonbidatu ziren sensibilizazio-saio batean azaldu zen. Azkenik, Berdintasun Departamentuko web-orrian herritar guztien eskura jarri zen.
- **Balorazioa.** Urtearen arabera parte hartzen duten departamentuekin elkarrizketa bat egin izan ohi da jaien inguruan duten balorazioa ezagutzeko eta berdintasunean eman daitezkeen urratsak sakonago identifikatu ahal izateko.

Lanketa hau guztia Berdintasun Departamentuaren eta Farapi Kooperatibaren arteko elkarlanean egin da. Era berean, esan bezala, beste departamentu batzuek ere parte hartu dute hainbat mailatan: Jaia, Kirol, Gazteria, Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak eta Komunikazio Departamentuekin harremana etengabekoa da.

## 4. NOLA IRAKURRI DOKUMENTU HAU

Txosten honek oso banaketa sinplea eta intuitiboa izateko eraiki dugu. Landutako gai bakoitzak atal bat osatzen du, guztira 4 atal nagusi: Komunikazioa, Antolakuntza, Egitaraua eta Indarkeria. Egitarauan, beste 3 gai biltzen dira: Txupinazoa, Musika eta Kirolak.

Beraz, honela litzateke eskema:

1. Komunikazioa
2. Antolakuntza
3. Egitaraua
  - Txupinazoa
  - Musika
  - Kirolak
4. Indarkeria

Atal bakoitzean egin den azterketa jasotzen da eta, ondoren, eman diren aurrerapenak eta aurrera jarraitzeko proposamenak. Proposamenetan bi motakoak jasotzen dira, aurtengo egoerari erantzuteko sortu direnak eta Behatokiko planetik aukeratu direnak; azken horiek (P) irudiarekin identifikatuta daude.

Amaitzeko, balorazio orokorraren atala egin da.

## 5. KOMUNIKAZIOA


### Sarrera

Komunikazioak berebiziko garrantzia du jaien inguruan transmititzen den irudian. Irudi hori jaien inguruan dugun ikuskerak baldintzatuko du, eta era berean, **neurri kontzienterik jarri ezean, emakumeen eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak erreproduzituko dira**. Irudi, mezu eta hizkuntza berdinzaleak eta eraldatzaileak erabiltzean, ordea, ikuskera berriak sortzen dira, eta horiek eragin zuzena dute jaiak bizitzeko izango dugun eran.

Atal honetan analisi dokumentala egin da, testu eta irudien azterketa, alegia. Kartela, egitaraua, prentsa oharrak eta udalaren agerraldi publikoak aztertu dira, baita Twitter, Facebook eta udal-webgunea ere.

### Kartela

Kartela **jaien inguruko irudi grafiko nagusia da, eta jaien erreferente bisual bihurtzen da**. Kartelaren aukeraketaren atzean jaien inguruan eman nahi den irudia dago, eta horregatik, berdintasuna bermatzea beharrezkoa da.



2023ko San Joan jaietako irudiari dagokionez, **Angel Blanco Egoskozabalek aurkeztutako "Salba" izan zen irabazlea**. Kartel horrek eskopetariei egiten zien erreferentzia, eta hori izan zen, era berean, epai-mahaikideen hitzetan, kartel hori aukeratzeko aintzat hartutako ezaugarrietako bat. **Eskopetariek leku nabarmena dute Tolosako jaietan, eta jaien ikono garrantzitsuenetako bat direla ere esan dezakegu**.

Genero-ikuspegitik lehen irakurketa egiteko orduan ere, aipatu beharko litzateke kartelak ez zituela irudi antropomorfikorik; beraz, lehiaketarako dauden irizpideetan oinarrituta **parekidetasun irizpideak betetzen zirela esan dezakegu**. Aldiz, kartela osatzeko erabili den inspirazio-iturriaren genero-analisi bat egin daiteke ikuspegi sinbolikotik. Hau da, kartelean pertsonak ez agertu arren jai irudikatze aukeratzeko den ekintzak sinbologia eta iruditeria kolektiboan eragin bat du. Beraz, honi helduko diogu hurrengo lerroetan.

Historikoki, jarduera maskulinizatua izan da, eta oraindik, horren kutsua izan dezakeela esan dezakegu. Hala ere, goiko irudian ikusten den bezala, emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute. Aipagarria da gero eta emakume gehiago daudela, gehienak txilibitua jotzen eskopetekin

baino, nolabait eskopetarien rola oraingoz gizonak jarraitzen dute mantentzen maila altu batean. Gero eta ekintza berdinzaleagoa dela esan dezakegu. 2023. urtean, 18 konpainiek parte hartu zuten, denak mistoak, eta horietatik lautan kapitainak emakumeak izan ziren.

Beste jarduera askorekin gertatu den bezala, **gizonek tradizionalki egindako ofizioak edo zaletasunak dira espazio publikora eramaten direnak**, herrikide guztien aurrean irudikatzen direnak eta prestigio iturri direnak. Urtean behin, jaien testuinguruan, plaza publikoa hartzen dute, erritualari eta ospakizunari lotuta. Hala ere, jarduera horretan emakumeen parte hartzea handitzen doala ezin da ukatu, eta roletan aldaketak ematen ari direla ikus daiteke. Nolabait, interesantea litzateke sakonago aztertzea Eskopetarien jardueran ematen ari diren aldaketak ze punturaino izaten ari diren eragina iruditegi kolektiboan.

Beste urte batzuetan gertatu bezala, **Tolosako jaietako kartelak San Joan jaien inguruan dagoen iruditeriaren eragin nabarmena du**: bai egileek kartelak asmatu eta diseinatzerako orduan, baita epai-mahaikideek elementu batzuk edo beste balioan jartzerako orduan ere. Ildo horretan, ezin dugu ahaztu gizarte androzentriko eta patriarkal batean bizi garen neurrian, errepresentazio kulturek eta publikoek ere eredu hori irudikatuko eta birstortuko dutela. Gizarte berdinzaleago baten alde egin nahi badugu, **jaietako iruditegian feminizatuagoak diren errepresentazioei ere lekua egitea komenigarria litzateke, edota maskulinizatuak diren jardueretan, emakumeek dituzten rolak lehen planoan jarri**.

Kartela lehiaketa bitartez aukeratzeko da. Lehiaketako oinarrietan ondorengo klausulak azaltzen dira: epaimahaian ordezkariak parekatua bermatuko da (10. art.) eta "generoaren irudikapenean erabiliko diren irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeren arloan desberdintasunen tratamendu gutxiesgarria ekidinez" (11. art). Oinarri horiek indarrean daude duela urte batzuetatik hona, eta dagoeneko inork ez ditu zalantzan jartzen.

**Kartel lehiaketaren epaimahaia parekidea izan da**; 2 emakume eta 2 gizonak osatu dute. Laurak diseinuan eta argazkigintzan eskarmentu handikoak. Gainera, berdintasun-teknikariek parte hartu dute lehenengo galbahean, azkenengo urteetan bezala. Lan egiteko modu hori gaur egun egonkortuta dago eta jaietako antolakuntzaren sistemaren barruan txertatuta dagoela esan daiteke.

Kartel-lehiaketan 25 proposamen jaso ziren. Parte-hartzea anonimoa izan arren, **8 emakumeren artelanak eta 17 gizonen artelanak aurkeztu ziren**. 2023ko irabazlea, esan bezala, Angel Blanco Egoskozabal izan zen. Azken urteetako joerari jarraiki, gizonen partaidetza emakumeena baino altuagoa da. Aurten gizonen presentzia emakumeenarekin konparatuz bikoitza izan da. Irabazlea ere, gizonetzkoa izan zen, eta begirada atzera joko bagenu, Behatokiaren azterketak hasi zirenetik 2 gizonetzkoa izan dira irabazleak eta 2 aldiz bikote misto bat<sup>2</sup>.

		EMAKUMEA	GIZONA	TALDE MISTOA
2022	Enrique Diaz Nuñez		x	
2019	Alvaro Limousin		x	
2018	Iruñe Elizegi eta Xabier Isasti			x
2017	Iruñe Elizegi eta Xabier Isasti			x
<b>GUZTIRA</b>		<b>0</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

<sup>2</sup> Sexu-izendapenak izenei suposatzen zaien genero-markan oinarritu dira.



## Egitarauaren eskuorria

Azken urteetako lan sistemari jarraiki, **Berdintasun Departamentuak egitarauaren azterketa egin zuen hasieratik**, hizkuntza, irudi eta eduki ez-sexista eta ez-homofoboa bermatzen zela ziurtatuz.

**Hizkuntza ez-sexista** bermatzeari dagokionez, nabari da Komunikazio Departamentuan gai honekiko gero eta kontzientziazio handiagoa dagoela, eta **gai hau barneratuta dagoela** esan daiteke.

Agerikoa da azken urteetan argazkien bitartezko iruditerian parekidetasuna bermatzeko egiten ari den saiakera. Izan ere, Berdintasun Departamentuak, urtero bezala, aurten ere aukeratutako argazkien genero-analisia egin du, eta departamentuaren onespenerekin atera da programa.

Alde batetik, **emakumeen eta gizonen kopuruak oso orekatuta azaltzen dira, eta gero eta presentzia gehiago dute generoa agerian uzten ez diren irudiak** (dantzarien hankak, eskuak...). Horrek parekidetasunean aurrerapauso nabarmenak eman direla erakusten digu. Baina berdintasunaren aldeko urratsak egin nahi badira, beharrezkoa izango da genero-estereotipoak haustea eta eredu hegemonikoak gainditzen dituzten iruditeria azaleratzea.



Ildo horretan, **positiboa da bordondantzarietara lotuta emakumeek hartu duten presentzia egitarauan ere irudikatzea**, eta baita irudi oso lausoa bada ere, San Joan suan neskek agertzea salto egiten.



Hobetzeko moduan, ohikoagoak diren jardueretan emakumeen eta gizonen rol estereotipatuak ez erreproduzitzea legoke. Adibide moduan, 2023ko egitarauan, **lehen planoan ageri diren bi gizonezko bakarrak maskulinizatutako irudiekin lotura zuzena dute**: suziria botatzen eta San Joan suan salto egiten. Biak ala biak, akzioa, protagonismoa eta arriskua iradokitzen dute eta beraz, interesgarria litzake gizonak hain maskulinizatutakoak ez diren jarduerekin ere identifikatzen diren irudiak erakustea.



Bestalde, **jaiak berdintasunean bizitzearen aldeko mezua helarazi eta udala norabide horretan egiten ari den lana erakuts daiteke argitara ematen diren idatzizko euskarrien bitartez**. Egitarauko alkatearen agurrean, aipamen berezia egiten dio jai berdinzaleen alde azken urteetan egindako lanari, ondorengo gogoraraziz: aurreko urtean lehen aldiz, emakume bat izan zela Bordondantzarien kapitain eta estreinako emakume bat *aguazillo* gisa atera zela prozesioan. Azken urteetan egin ohi den bezala, azken hitzetan ere ondorengo azpimarratu zuten: *“Ospa ditzaugula jaiak errespetuan eta modu berdinzalean”*.

**ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZANI!**  
 POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

**GUNE MOREA**  
 INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA  
 Espacio libre de violencia machista

**17-24** Ekainak 24:00  
 Junio 09:00

ANILERO LA  
 ANILERO LA  
 ANILERO LA

**#LIBRENonahi®**

**JOKA SANO**  
 Ondo pasa, pasa gabe!!!

943 675 858

Urtarrilaren 17an  
 Tolosa, Tolosa  
 Tolosa, Tolosa

Egitarauaren amaierako orrialdean ere, ondorengo lema zegoen izenburutzat: **“Erasorik gabeko jaien alde, jarrera aktiboa izan!”**. Lehen aldia da San Joanetako eskuorrian indarkeriaren aurkako kartela agertzen dela, nahiz eta aurretiaz kartela ateratzen zen. Era honetan, herritar guztiei jarrera aktiboa izateko deialdia egiten zaie, eta ildo honetan, aurrera pauso moduan uler dezakegu. Gainera, Gune Morearen berri ere eman zen, eta alde batean, Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxearen helbidea azaldu zen, eta bestean, udaltzaingoaren telefono-zenbakia eta helbidea. Inauterietan ere Gune Morea jarri zen, eta beraz, San Joanetako bigarren aldia izan zen (kasu horretan, zerbitzuaren iraupena luzatu zen, Inauterietan baino 3 ordu gehiago jarritz).

*Joka sano, ondo pasa, pasa gabe!!!* Eta **#LIBRENonahi** kanpainen berri ere ematen da.

## Prentsa oharra, sare sozialak eta hedabideak

Tolosako Udalean **sistematizatuta dago prentsa oharretan, sare sozialetan eta hedabideei eskura ematen zaien informazioan genero ikuspegia txertatzea** eta jaietan berdintasun-alorrean ematen diren aurrerapausoei garrantzia nabarmentzea.



Ataria hedabidetik lortutako argazkia.

2023. urteko San Joan jaien testuinguruan, aurreko urteko gertakari historiko bat gogorazi eta balioa nabarmendu zitzaion: **g bordon dantzarien kapitaina emakumezkoa izan zela**, alegia. Atarian egindako [elkarrizketan](#), Miren Nazabal Urruzolak emakumeak bordon dantzetan sartzeko egindako prozesua azaldu zuen, bere ibilbide pertsonalarekin gurutzatuz.

**Udaleko web-orrian eta sare sozialetan**, bestalde, egindako jardueren jarraipena egin zen, eta uneoro, **hizkuntza eta iruditegi ez sexista erabili ziren**. Horrez gain, gainerako komunikazio-euskarrietan gertatu bezala, emakumeen irudiak ikusarazteko saiakera egin da **eta jaietan berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren kontra egiten diren kanpainen berri emateko baliatu da**.



Oargi konpainiaren estreinua... - Tolosa Berdintasuna  
Oargi konpainiaren estreinua. #oargi  
m.facebook.com

[https://m.facebook.com/story.php?story\\_fbid=601017142130534&id=100066667592064&sfnsn=scwspmo](https://m.facebook.com/story.php?story_fbid=601017142130534&id=100066667592064&sfnsn=scwspmo)

## Udaleko agerraldiak

**Udalak**, duela urte batzuk hona, publikoki egiten dituen agerraldietan, hala nola, San Joanetako jaien berri emateko, **irudi berdinzalea edo parekidea bermatzen du**. Hau da, maila honetan, genero berdintasunaren aldeko jarrera erakusteko oso garrantzitsua da ordezkartzen emakumeak egotea.

Tolosako 2023ko San Joan jaien berri emateko egin zen agerraldian 9 lagunek parte hartu zuten, 5 emakumek eta 4 gizonek (ezkerretik eskuinera):

- Mattin Zeberio (Mirua musika taldea)
- Elene Arandia (Tempora musika taldea)
- Irati Hartsuaga (Hodeiertz abesbatza)
- Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (Kultura eta jaietako zinegotzia)
- Olatz Peon (Alkatea)
- Kakun Etxeberria (Eskopetariaren ordezkaria)
- Jon Garmendia (Udal Txistulari Bandako zuzendaria)
- Buruhandien figurei dagokionez, Juanito Lope eskultore tolosarraren omenezko buruhandia dauka batek eta bestea irudi maskulinoarekin lotuko genuke.

**Azken urteetan bezala, irudi berdinzalea eman zen.** Jaietako aurkezpena momentu garrantzitsua izaten da, oihartzuna izaten duena eta udalaren jarrera erakusteko balio duena. Beraz, aurkezpen honetan gizonak eta emakumeak egoteak eta emakumeek leku zentralak izateak berebiziko garrantzia dute.



*Ataria hedabidetik lortutako argazkia.*

Bestalde, jaietako kartela eta egitarauaz gain, **“Erasorik gabeko jaien alde, jarrera aktiboa izan!”** kanpainari lotutako irudiak ere aurkeztu ziren. Horrez gain, alkateak egindako prentsaurrekoan, jai berdinzaleen alde egindako lana goraiatu eta norabide honetan jarraitzeko deia egin zuen, **«San Joan jaiak gero eta parte-hartzaileagoak diren bezala, berdinzaleagoak ere badira, eta hori, hein handi batean, azken urteotan egindako lan mardulari esker da»**. Halaber, indarkeria matxistaren kontrako kanpainaren berri ere eman zuen, eta Gune Morearen inguruko zehaztasunak azaldu zituen. Herriko tabernariei eraso matxisten aurrean erantzuteko gomendioen gutuna helarazi zitzaizela ere aipatu zuen.

Horrekin guztiarekin, agerian gelditzen da Tolosako udalak jaien esparruan berdintasunaren alde egiten den lana **balioan jarri eta plazaratzeko ahalegina** egiten duela, horretarako udalaren esku dauden baliabideak erabiliz.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

---

### Aurrerapenak

- Dagoeneko kartel lehiaketako epaimahaia parekidea izatea sistematizatuta eta barneratuta dago. Halaber, berdintasun-teknikariak lehenengo galbahean parte hartzen du aholkulari moduan.
- Komunikazio Departamentuan iruditegi eta hizkuntza ez sexista irizpideen arabera lan egitea barneratuta dute.
- Egitarauan indarkeria sexistaren kontrako sentsibilizazio kanpaina agertzen da, urtero bezala.
- Egitarauan hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren irizpideak barneratuta daudela ikusten da. Berdintasun, Jaiak eta Komunikazio Departamentuen arteko aurretiazko komunikazioa sistematizatuta dago.
- Sare sozialetan, udal-webgunean eta herriko hedabideetan berdintasunaren inguruko aurrerapausoen berri eman zen.
- Azkenengo urteetan bezala, Alekan jaietako Behatokiaren berri eman zuten. [12. alean](#) (2022) Behatokiaren planaren harira erreportajea osatu zuten, ondoren, [14. alean](#), Behatokiaren argazkia atera zen, gainerako aipamenik gabe. [15. alean](#), Behatokia aipatzen da Andragora etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen artean eta berdintasunaren alde eman diren aurrerapausoen artean aipatzen da.
- Udal-agerraldian emakumeen presentzia handitu da, alor bakoitzetik emakume ordezkari bat egon da. Aldi berean, agerraldi osoan zehar eta ahots ezberdinetatik berdintasunaren alde eta eraso sexisten kontrako mezuak bidali dira.

### Proposamenak

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Planean](#)<sup>3</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira (“P” hizkiarekin identifikatuta).

- Urtero behatokiaren jarduna eta aurreneko urteetan ateratako ondorioren bat programan modu motz batean jartzea.
- San Joanetan, Inauterietan bezala, indarkeriaren eta berdintasunaren aldeko sentsibilizazio bideo bat ateratzea.
- Festetako euskarri komunikatiboetan erabiltzen den iruditegian genero rolak hausten dituzten irudiak erabili. Hau da, festetako jarduera maskulinizatueta emakumeen irudiei lehentasuna eman (adibidez, gaueko kontzertuetako emakume musikariak, suan salto egiten, kirolean...) eta jarduera feminizatueta gizonen irudiak sartzea (hurrekin, ekintza feminizatueta...) emakumeen aniztasunaren aldeko irizpideak ahaztu gabe (adina, jatorria eta abar). Halaber, helburua da gai honetan egon daitezkeen beste genero adierazpenei (ez bitarrak) lekua ematea. (P)<sup>4</sup>
- Udaletik euskarri bat sortu (albuma, bideoa, panela...), Tolosako jaietako eragileek azken urteetan jaiak berdinzaleagoak izateko egin dituzten ekintzak jasotzen dituen. (P)<sup>5</sup>

---

<sup>3</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>4</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*; 3.1 Arloa; helburua 3.1.3 B (14. orria)


<sup>5</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*; 3.3 Arloa; helburua 3.3.2 A (15. orria)

## 6. ANTOLAKUNTZA

Aurten, atal honi dagokionez, **Kuadrilla Eguneko antolakuntza** aztertzea erabaki da. Horretarako, Kuadrilla Eguneko antolakuntzako bi ordezkariekin elkarrizketa bat egin zen. Ondorengo lerrootan elkarrizketa horretatik ateratako hainbat gai eta datu jaso ditugu.

**Kuadrilla eguneko antolakuntza aurreko urtean jokoak galdu zituzten 6 kuadrillek osatzen dute;** beraz, urtero jende ezberdina da. Jokoetan 12 kuadrillek parte hartzen dute eta kuadrilla horiek urte horretako antolatzaileek izendatzen dituzte. Kuadrillak izendatzean saiatzen da aniztasuna egon dadin; hala ere, kuadrilla gazteenak normalean ez dira izendatzen eta antolatzaileak izan direnak ere ez. Bestela, ez dago inongo irizpiderik kuadrillak izendatzeko.

Aurten, **6 kuadrilla horietatik, 1 mutilez bakarrik osatuta zegoen, 1 mixtoa eta 4 emakumez osatuta zeuden.** Egunerokoan **12-15 lagunek** hartu zuten antolakuntzaren ardura: 2 kuadrillak mutilak bidali zituzten ordezkari gisa eta 4 kuadrillak neskak. **Gehiengoa neskak ziren.**



**Lanak gaitasunen, jakintzen eta proaktibitatearen arabera antolatu zituzten, ez zen generoaren araberako lan banaketarik egin.** Hala ere, lanen artean ez zegoela lan fisikorik azpimarratzen zuten. Egongo balitz ziur aski joera mutilak egitera izango zela ulertzeraz eman dute. Antolakuntzan emakume gehiago zeudela ohartarazi zuten; beraz, emakumezkoen presentzia eta ikusgarritasuna handiagoa izan zen. Oro har, antolakuntzako kuadrillen arteko giroa ona izan zela eta lanak ongi egin zirela baloratu zuten.

Kuadrillen Egunaren antolakuntzan urtero antolatzaileak berriak dira, beraz jakintzaren transmisioa garrantzitsua da. Lan honetan jaietako teknikariaren lana funtsezkoa da, bera baita zer egin behar den azaltzen diena eta zalantzak argitzen dizkiena. Horretaz gain, aurreko antolatzaileekin harremana izatea garrantzitsua dela, baina hori ez dela beti bermatzen argitu zuten. Hala ere, aurreko urteko antolakuntzak lan guztia sistematizatzeko egin zuten Excela goraiatu zuten. Tresna horrek informazio asko jasota zuten eta hainbat datu eta lanen nondik norakoak ongi azaltzen zituen.

Kuadrillen Egunean, esan bezala, jokoak antolatzen dira eta momentu dibertigarria izateaz gain, hurrengo urteko antolatzaileak ateratzen dira. Jokoak antolakuntzak pentsatzen, erabakitzen eta antolatzen ditu; normalean, **generorik gabeko jokoak dira**. Hau da, genero-rolak eta -estereotipoak birsortzen edo iraunarazten laguntzen ez dituzten jokoak dira, hala nola paperezko abioiak egin eta bota (urrunen heltzen dena jokoa irabazten du).

Antolakuntzaren iritziz, Kuadrillaren Eguna nahiko egun berdinzalea da. Indarkeriari dagokionez, gauzak aldatzen doazela uste dute, gaur egun neskak gero eta kontzientziatuago daude eta erasoak errazago antzematen dituzte. Mutilen artean ere erasotzaile gutxiago daudela uste dute eta, oro har, erasoak jaso duenarekiko babes handiagoa dagoela. Adinari dagokionez, jai-giroan zenbat eta helduagoa orduan eta seguruago sentitzen zara eta zenbat eta gazteago erasoak jasotzeko orduan eta aukera gehiago duzula uste dute.



## 7. EGITARAUA

### Sarrera

Jaietan zer programatzen dugun genero ikuspegitik aztertzea oinarrizkoa da Behatokiarentzako; izan ere, zer-nolako jaiak egiten ditugun erakusteaz gain, zer-nolako jaiak nahiko genituzkeen galdetzea planteatzen digu. 2023. urteko San Joan jaietako **txupinazoa**, **musika** eta **kirol-ekintzak** aztertu dira.

### Txupinazoa

Txupinazoa jaietako momentu gorenetakoa bat izan ohi da, eta **ohorezko ekintza moduan kategorizatzen da**, herriak sinbolikoki herrikide bat/talde bat omentzen duelako horrek egindako lanagatik. **2018. urteaz geroztik, txupinazoa nork botako duen aukeratzeko berdintasun-irizpideak ere hartzen dira kontuan**, eta jai bileren oniritzia jaso behar du.

2023. urteari dagokionez, **Gainditzen elkartea izan da txupinazoa jaurtitzeko aukeratua, eta bere izenean, elkarteko zuzendari Julian Rodriguezek bota du**. Bere esanetan, «elkartek lan handia egin du urteetan zehar Tolosan bizi garen pertsona gorren eskubideen eta ongizatearen aldeko borrokan» eta lan hori aitortzen da ekitaldi honen bitartez. Bere diskurtsoan, inklusioaren aldeko aldarria egin zuen eta jaietan kolektibo guztiok gozatzeko aukera izan behar dutela gogorarazi zuen.



*Ataria hedabidetik lortutako argazkia.*

Berdintasun-ikuspegitik, ondorengo analisia egin dezakegu: lehendabizi, agerikoa da elkartearen ordezkari moduan gizon bat aurkeztu zela, eta horrek ez duela emakumeek elkartegintzan egiten duten lanari aitortza ematen laguntzen. Izan ere, elkarteak mistoak izanda ere, oso ohikoa izaten da aurpegi publikoa gizonak izatea, eta emakumeek beren gain hartzea ezkutuago gelditzen diren lanak eta ardurak. Ez dakigu Gainditzen elkartearen errealitatea, baina edozein kasutan, aurretiaz aipatu bezala, txupinaren momentuan ere, emakumeek espazio publikoa eta taldeen ordezkagarritasuna hartzea garrantzitsua litzateke.

Bestalde, inklusioari lotutako elkarte bat izatea positibotzat jo dezakegu. Izan ere, ikuspegi feminista batetik, bazterretan dauden eta ezkutuan gelditzen diren kolektiboek plaza publikoa hartzea ere bilatzen da, eta ildo honetan, pertsona gorren errealitatea ekartzea balioa nabarmentzeko modukoa da. Dena den, beste kolektibo askorekin bezala, **aniztasun**

**funtzionalari lotutako errealitate eta bizipenak genero-ikuspegitik ere behatu beharko lirateke**, emakumeek bazterkeria bikoitza jasan dezaketelako. Gainditzen elkartearen web orrian ez da gai honi buruzko erreferentziarik aurkitzen, eta horrek agerian uzten du, gerora begira, interesgarria litzatekeela kolektibo zehatzei bideratutako elkarteekin ere genero ikuspegia haien jardunean txertatzeko baliabideak eskaintzea.

Ikusleei dagokienez, ehunka lagun bildu ziren. Gehienak nerabeak, gazteak eta haurrak helduekin izan ziren. Jarrera aktiboa eta alaia izan zuten, jai giroan ohikoa den moduan.

Txupinazoa amaitutakoan, **erraldoiak eta buruhandiak sartu ziren plazara**, ohikoa den moduan. Erraldoiak **3 gizon-emakume bikote dira**, eta bikoteka dantza egiten dute, bikote eredu heterosexuala irudikatuz. Buruhandiak gizonak irudikatzen dituzte, eta gehienetan gizonetzkoak izaten dira rol hau betetzen duten gazteak. Dultzaineroak gizonak izan ziren.



*Ataria hedabidetik lortutako argazkiak.*

## Aurreko urteekin alderatuz

Dagoeneko, 2018ko San Joanen ostean, adostu zen bezala, Txupinazoa botako duen personaren edo eragilearen aukeraketarako **irizpide** batzuk indarrean daude.

Dagoen zor historikoa orekatzeko helburuarekin urtero emakumeak txupinazoa botatzeak izango du lehentasuna (zorra orekatu arte, behintzat). Hori bermatzerik ez badago, ondorengo irizpideek izango dute lehentasuna beren hurrenkeraren arabera:

1. Talde edo kolektibo mistoa izatea.
2. Bi generoak bermatuta egotea; hau da, txupinazoa bi elkarte edo kolektibok botatzea adibidez gimnasia erritmikoko taldea (denak neskak dira) eta txistulariak (denak gizonetzkoak dira)
3. Alterno positiboa. Hau da, aurreko irizpideak bermatu ezin badira, eta gizon talde edo kolektibo batek botako balu txupina, hurrengo 2 urteetan emakumezko talde edo kolektibo batek bota beharko luke.

Txupina gizonetzkoek osatutako talde edo kolektibo batek botako balu, berdintasunari keinu bat egitea eskatuko zaio: hala nola, indarkeriaren kontrako bandera bat edo pegatinak eramatea; hitza hartuz gero, berdintasunaren aldeko mezuak botatzea...

Beraz, **irizpide horiekin parekidetasuna eta berdintasuna bermatzen dela ziurtatuko litzateke**.

Irizpideak indarrean daudenetik hauek izan dira txupinazoa bota dituztenak:

- 2019an, Udal Txistularien Banda. Denak gizonak.

- 2022an, Katixa Perea, Ballet irakaslea.
- 2023an, Gainditzen elkarte, Julian Rodriguez ordezkariaren bitartez.

## **Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak**

Txupinazoa aztertzea jaietako eremu oso esanguratsuan fokua jartzea suposatzen du. Dagoeneko txupinazoan berdintasuna bermatzeko tresna diseinatu, adostu eta aplikatzen da. Horrek jaietan eragina izan duela ezin da ukatu; hala ere, urtez urte eraginkortasun-maila mantentzen dela eta hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da.

### *Aurrerapenak txupinazoan*

- Aurtengo txupinazoan, Behatokiari dagokionez, berdintasun-irizpide batzuk bete direla adieraz dezakegu: omendutako taldea mistoa izan da, baina txupina bota duena gizona izan da.
- Txupinazoan irizpideen artean, pregoilarietara ematea zehazten zen. Aurreko irudietan azaltzen den bezala, aurtengo irizpide hau bete da eta gaineratu, pregoilariak gain, korporazioa eta balkoian egon ziren bestelako gonbidatuek ere jarri zutela.
- Pregoian jaiak berdintasunez bizitzeko eta indarkeriaren kontrako aipua egina da.
- Publikoaren jarrera aktiboa izan da eta ez da genero desberdintasunik nabarmendu hauen rola eta jarreraren artean.

### *Proposamenak txupinazoan*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>6</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- 2018. urtean ezarritako irizpideen arabera, emakumezkoek izan beharko lukete txupina botatzeko lehentasuna, eta elkarte mistoak diren kasuetan, irizpide hau betetzeko ahalegina egin beharko litzake.
- Txupinazoaren aukeraketarako irizpideak jaien antolakuntzan ibiltzen diren eragileekin partekatu. (P)<sup>7</sup>
- Txupinazoaren ondoren jo behar duen edozein musika talde, dultzaina edo txistulari banda edo taldeetan gutxienez emakume bat egotea interesgarria litzateke.
- Azkenik, aipatzekoa da erraldoiek eta buruhandiek irudikatzen duten eredu heterozentrista eta maskulinoa. Hemen ere, eraldaketa txikien bitartez eredu aske eta

---

<sup>6</sup>[https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>7</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *KTolosako jaien antolakuntza berdinizaleago baterantz*; 2.1 Arloa; helburua 2.1.2 A (13. orria)

berdinzaleagoak erakusteko apustua egin daiteke: erraldoi mutilak elkarrekin nahastuta dantzatzea, edo emakumezko buruhandiak sortzea, besteak beste.


## Musika-ikuskizunak

Jaiak eta musika estuki lotuta daude, kale-musika edota kontzertu gabe, jaiak ezin irudikatzeraino. **Balio handiko kultura-adierazpenak dira, eta herrietako jaietan, funtzio kohesionatzaile eta identitario ere hartzen dute.** San Joan jaietan, musika-estilo anitzak programatzen dira, adina desberdinei eta gustu zabalei zuzenduta. Tolosako tradizioari jarraiki, kale-musika eta txarangek zein musika tradizionalak presentzia nabarmena dute.

**2023. urteko San Joanetan 27 musika ikuskizun egon dira,** eta 305 musikarik jo dute. Hauek izan dira azterketa honetarako oinarri moduan hartu ditugunak; izan ere, analisi kuantitatibo bat egin dugu, musika-talde horietako kideen sexuari erreparatuz. Analisiarekin hasi aurretik, kontaketa egiteko orduan kontuan hartu ditugun irizpide batzuk aipatu nahiko genituzke:

- Musika ikuskizunak kontabilizatu ditugu, eta ez talde kopuruak; izan ere, talde batzuek behin baino gehiagotan jo dute, eta programazioan duten lekua ikusgarri egiteko, jarduera bakoitza kontatu dugu.
- Datuak ez dira erabat zehatzak, batez ere talde handien kasuan. Batzuetan, zaila izan da kideen kopuru zehatza lortzea, eta gutxi gorabeherako estimazio bat egin dugu. Hala ere, ez dugu uste honek ikuspegi orokorrean eragin nabarmenik duenik.
- Bakarlarien kasuan, bakarlaria kontatu dugu, kontuan hartu gabe bandan jotzen duten kideen kopurua.
- 'Tolosa kantari' ekimena ez dugu zenbaketan sartu, ez baitago kideen kopuru zehatzik.
- 'Urdiñak 100 urtez' ekitaldian, talde askok jo zuten. Kasu horretan ahal izan den zehatzen izaten saiatu gara, baina posible da zehaztasuna ez izatea % 100ekoa, musikari askok parte hartu zutelako.

Musika ikuskizun horien genero-analisiarekin hasteko, ikuskizun guztietan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopuru totala alderatu dugu. Esan bezala, **305 musikarik hartu zuten parte guztira, eta horietatik, 123 emakumezkoak izan ziren (% 40,33), eta 182 gizonezkoak (% 59,67).**




**Datuak baikorrak direla esan dezakegu.** Izan ere, 2018. urtean musika-ikuskizunetan emakumeen presentzia handitzeko, musika-taldeak kontratatzeko irizpideak ezarri ziren, eta horien arabera, “kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoa izatea” eta “urtez urte gutxienerako ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egitea % 50era heldu arte” jasotzen ziren. **Aurtengo datuek, ibilbide-orriari eutsi zaiola erakusten digu, bi irizpide horiek bete baitira.**

Ondorengo taulan azken urteetako eboluzioa ikus daiteke datu zehatzekin.

2023		2022		2019		2018	
Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	gizonak
% 40,33	% 59,67	% 36	% 64	% 28	% 72	% 36	% 64

1. taula: Musikari guztiak sexuaren arabera. 2018, 2019, 2022 eta 2023ko konparaketa.

Musikarien sexuaz gain, musika taldeen izaeraren inguruko azterketa ere egin dugu, sexuaren araberako osieran arreta jarritz. Atal honetan, hiru kategoria bereizi ditugu: talde mistoak, emakumez osatutakoak eta gizonez osatutakoak. Ondorengo grafikoan ikusten den bezala, **ia taldeen erdiak mistoak ziren (% 48, 13 talde), emakumez eta gizonez osatuta baitzeuden.** Ondoren, gizonez osatutako taldeak egongo lirateke (% 33, 9 talde), emakumez soilik osatutakoak gutxiengoa izanik (% 19, 5 talde).



2023. urtea aurreko urteekin konparatzeko, lehendabizi, aurreko urteetan baino kontzertu gutxiago egon direla aipatu beharko genuke. Izan ere, azken urteetako joerari jarraiki, emakumez osatutako 4 taldek jo zuten, baina kontzertu gutxiago egon zirenez, ehunekoa altuagoa gelditzen da. Gizonez osatutako taldeen kopurua ere jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta, baina talde mistoen kopuruak izan du jaitsiera nabarmenena.

Jaietako kontratazio-irizpideetan **“urtero emakumez bakarrik osatutako taldeen ehunekoa handitzea”** jaso zen, eta **helburu hori bete dela esan daiteke, baina talde mistoen beharakada handia ere kezagarria da, hemen ere emakumeen presentzia handia izan ohi baita. Bestetik, naiz eta ehunekotan mutilen portzentajea igo programatu diren mutilez osatutako taldeak asko jaitsi dira.**

	2023		2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Neskez bakarrik osatutako taldeak	% 15	4	% 8	4	% 10	4	% 8	4
Mutilez bakarrik osatutako taldeak	% 37	10	% 34	16	% 27	11	% 34	16
Talde mistoak	% 48	13	% 58	25	% 63	26	% 58	28

2. taula: Musika taldeen osaera sexuaren arabera. 2018, 2019, 2022 eta 2023 konparaketa

Puntu oso **positibo** moduan, **Batukada Feministaren** ikuskizuna izan da. Tolosako kaleetan parte hartzen duten **10. urtea da**, eta dagoeneko erreferente bihurtu da. Taldea emakumez soilik


osatuta dago. Ikuspegi feminista batetik, musika eta perkusio erritmoen bitartez, ahalduntzea eta kalea okupatzea ere bilatzen dute. Horrelako eredu erreferentziales eragin oso positiboa dute neska gazteengan.

Horretaz gain, azpimarratu behar dugu Batukada Feministaz gain identifikatu diren emakumez bakarrik osatutako beste 3 talde edo bakarlari hauek izan direla: Fresa Morango, Muare, Verde Prato eta Elena Arandia. Azkenengo biak 'Urđiñak 100 urtez' kontzertuaren baitan programatuta zeuden. Azken urteetan aipatu bezala, **emakumeen kontratazioetan ohikoagoa izaten da bakarlariak edo bikote batez osatutako taldeak topatzea.**

Emakumez eta gizonez osatutako taldeei dagokionez, **talde misto moduan izendatu ditugu, baina horien artean ere berezitasunak daude.** 2007ko martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoan izaera orekatuaren printzipioa zehazten da<sup>8</sup>, ondorengo Departamentukapena eginez:

- **Talde mistoa, orekatua:** partaideak sexuen arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaide guztien % 60 eta % 40 bitartean kokatzen badira.
- **Talde mistoa, feminizatua:** % 60tik gora neskak badira.
- **Talde mistoa, maskulinizatua:** % 60tik gora mutilak badira.

Irizpide horiek ekarri ditugu Tolosako San Joan jaien analisisira ere, eta ondorengo emaitzak jaso ditugu:



Agerikoa da talde mistoen artean, **gehiengo zabala (% 54) talde maskulinizatuak** direla, eta bigarren maila batean, orekatuak eta feminizatuak. Txarangak, kaleko musika edo bandak, sarritan gizonez bakarrik osatuta egoten dira, baina gero eta emakume gehiago sartzen dira, joera misto maskulinizaturantz gerturatuz. Eraldaketa hau oso politiki gertatzen ari dela

<sup>8</sup>Hala ere, Martxoaren 3ko moldaketetako 9. puntuko Ordezkaritza Orekatuari dagokionez, honakoa jasotzen da: b) Emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa izanik, egokitzat jotzen denean emakumeek ordezkaritza handiagoa izatea, erabakiak hartzeko eremuetan ordezkaritza txikiegia izatearen ondorioz historikoki izan duten desberdinkeria-egoera zuzentze aldera.


azpimarratu beharko genuke. Talde misto feminizatuen kasuetan, talde txikiagoak izaten dira, aurretik aipatutako joerari jarraiki.

Azken urteen arteko konparazioa egiten badugu, misto maskulinizatuen joera nabarmena azpimarratu beharko genuke, hala ere, nabarmena da 2023an programatutako talde kopurua asko jaitsi dela. **Talde misto feminizatuak bi bakarrik izan badira ere, 2022. eta 2019. urteetako datuak hobetzea lortu da.** Talde misto orekatuei dagokienez, aurreko urteetako joera mantendu da, baina musika-ekitaldi gutxiago egon direnez, ehunekoa hazi egin da (%31n kokatu da).

	2023		2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Misto OREKATUA	% 31	4	% 20	5	% 15	4	% 18	5
Misto FEMINIZATUA	% 15	2	% 0	0	% 0	0	% 7	2
Misto MASKULINIZATUA	% 54	7	% 80	20	% 85	22	% 75	21

3. taula: talde mistoak. 2018, 2019, 2022 eta 2023ko datu konparatuak

Musika ekitaldien esparruan, **gauetan programatzen diren ikuskizun eta kontzertuek garrantzia berezia** dute. Oso jendetsuak izan ohi dira, eta aurrekontuen ehuneko handiak ere bideratzen dira ikuskizun horietara. 2023. urteari dagokionez, **talde misto maskulinizatuak dira kopuru altuena (% 38), eta ondoren, mutilez osatutako taldeak (% 24).** Maila askoz apalago batean daude **talde misto orekatuak (%19), misto feminizatuak (%9,5) eta emakumez osatutako taldeak (%9,5).**





Azkenengo 4 urteen alderaketa eginez gero, **emakumeen presentzia oholtza gainean, konparatiboki, hazi egin dela esan dezakegu**. Izan ere, gizonez soilik osatutako taldeen presentzia murriztu egin da, eta kopuru apalean izan bada ere, emakumez osatutako taldeen kopurua hazi egin da, baita talde misto feminizatuen kopurua ere.

		2023		2022		2019		2018	
		Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%
<b>Emakumez osatutako taldeak</b>		2	%9	1	%5	1	%6	0	%0
<b>Gizonez osatutako taldeak</b>		5	%24	10	%48	7	%43	10	%43
<b>Mistoak</b>	<b>Feminizatua</b>	2	%9	0	%0	0	%0	2	%8
	<b>Orekatua</b>	4	%19	2	%9	0	%0	3	%34
	<b>Maskulinizatua</b>	8	%38	8	%38	8	%50	8	%13

### Antolakuntza eta aurrekontua

Musika taldeen aukeraketa udaletik bideratzen da. 2019tik aurrera **udalak jaietan musika jarduerak aukeratzeko irizpide argiak ditu** eta hola dio:

Oholtzan eta beste jarduera musikaletan emakumeen presentzia handitzeko honako hau proposatzen da:

1. Ezaugarri berdineko bi taldeen artean emakume gehien dituen taldea lehenetsiko da.
2. Kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
  - a. Igotzen den heinean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
  - b. Urtez urte gutxieneko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.
3. Emakumez barrik osatutako taldeen urteko ehunekoa handitzen joango da.
4. Gaueko kontzertuetan emakumeen presentzia minimoa % 25ekoa izango da eta lehenago erabili diren irizpide berdinak ezarriko dira atal honetarako.

Musika aurrekontuari dagokionez, jaietako aurrekontu altuena eramaten duen atala izaten da. 2023. urtean, jaietako aurrekontu osoa 187.094 euro izan zen, eta kopuru horretatik, musika emanaldiek 77.998 euroko aurrekontua izan zuten (43.463 euro gaueko musika-emanaldiak eta 34.535 eguneko musika-emanaldiak). Aurrekontu osoaren % 41,68 bideratzen da musika emanaldietara, beraz.

Musikarien artean, desberdintasun handiak daude beraien lanagatik kobratzen duten diruaren inguruan, batzuek eta besteek duten katxetari lotuta batez ere.

Urtez urte, Behatokitik eta Berdintasun Departamentutik egindako eskaerari heldu zaio eta aurten Batukada Feministari jotzeagatik jaietako aurrekontutik ordaindu zaio.

Bestalde, musika taldeei dagokienez aurrekonturik handiena Huntza taldeak eraman du. Talde hau, analisi honen arabera misto maskulinizatua da. Hala ere, pasa den urtearekin konparatuta, hobetu egin da, hain zuzen ere, pasa den urteko musika-talde garestiena gizonez osatuta baitzegoen.

### **Datuak laburbilduz**

- Datu kuantitatiboei erreparatuz, 2023ko musika-kontzertuetan emakumeen parte hartzea % 40,33 izan da; hortaz, aurreko urteekin alderatuta, gorakada izan da.
- Taldeen % 38 (5) emakumez bakarrik osatuta egon dira. Aurreko urteekin alderatuz, gorakada bat eman da ehunekoan eta kopuruan.
- Taldeen %48 mistoak izan dira, aurreko urteetan baino gutxiago. Horietatik, % 31 orekatuak izan dira, % 15 feminizatuak eta % 54 maskulinizatuak. Aurreko urteekin alderatuz, feminizatuen igoera antzematen da.
- Gauetako kontzertuen %62 mutilez bakarrik osatutako taldeak edo talde maskulinizatutako izan dira, %19 orekatuak eta %19 emakumez osatutakoa edo misto feminizatuak.

### **Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak**

Esparru hauetan aurrera pausoak ematean, berdintasun-ikuspegia gero eta gehiago hedatuko da, eta eragina izango du jaietako gainontzeko esparruetan ere.

#### *Aurrerapenak*

- Aurreko urteetan baino kontzertu gutxiago egin dira, eta horrek datu absolutuetan eragina du, baina ehunekoetan erreparatuz gero, emakume musikarien kopurua hazi dela esan dezakegu.
- Batukada Feministak 10. urtez hartu du parte San Joanetan. Bertan 27 emakumek kalean presentzia handia hartzen dute eta ahalduntzerako esperientzia ere bada; beraz, oso erreferente positiboa da, oro har, eta neska gazteentzat bereziki.
- Talde mistoei dagokienez, hazi egin dira feminizatuen kopurua eta orekatuena.
- Jaietan musika kontratazioetan emakume musikarien kopurua handitzeko irizpide adostuak indarrean daude eta hauek jarraitzen dira.
- Udal Musika Eskolarekin batera emakume musikarien parte-hartzea hazteko egindako lanketari jarraipena ematea aurreikusten da (oraindik ez da zehaztu zein formatutan egingo den). Hala ere, instrumentuaren aukeraketan egiten den prozesuan Behatokia aholkularia da.

#### *Proposamenak*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) Planean<sup>9</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Musika taldeen kontratazioetan emakume musikarien kopurua igo (egunez eta gauez) eta udalak horretarako adostutako berdintasun-irizpideak presente izatea kontratazioak egiten direnean. (P)<sup>10</sup>
- Dagoeneko udalak jaiak berdinzaleak izateko bidean adostu dituen irizpideak (musika, txupinazoa, eta abar) eta hartu dituen erabakiak jai bilerako eragile guztiei sozializatu. (P)<sup>11</sup>
- Jai Bileretan edo antolakuntza espazio instituzionalizatuetan parte hartzen ez duten eragileei (txosnagunea eta abar) jaiak berdinzaleak egiteko formazioak edo bestelako tresnak eskaini (P)<sup>12</sup>. Hala nola, Behatokiak adostuta dituen emakume musikarien kopuruak handitzeko berdintasun-irizpideak eragile guztiei sozializatu.
- Emakumez bakarrik osatutako musika taldeak kontratatu eta ordutegi eta lekuetan lehenetsuna eman.
- Emakumez osatutako taldeen musika estiloaren aniztasuna bermatu.
- Talde mistoen kasuan, emakumeek protagonismodun lekuak izan ditzatela bilatu, eta kuantitatiboki, kopuru aldetik gehiago diren taldeak lehenetsi.
- Gizon/emakume binomioa gainditzen dituzten musikariak programatu.
- Sinergietan pausoak ematen jarraitu; besteak beste, txosnaguneko eta kuadrillen eguneko ordezkariekin elkartu eta antolatzen dituzten musika-jardueretan emakumeen presentzia handitzeko sentsibilizazioa landu.
- Herriko txarangei emakumeak kontratatzekeo pizgarriak eskaini.
- Jai bileretan edo jaiak antolatzeko dauden beste bileretan Behatokian atera diren datuak aurkeztu, azaldu eta datuak hobetzeko neurriak adostu.

<sup>9</sup>[https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>10</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.3 D (14. orria)

<sup>11</sup>Planean jasota: 2. Ardatza: Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz. 2.1 Arloa, Helburua 2.1.2 A (11. Orria)

<sup>12</sup>Planean jasota: 2. Ardatza: Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz. 2.1 Arloa, Helburua 2.1.3 F (11. Orria)

## Kirolak

Jarduera honen **analisi**a nagusiki **kuantitatiboa** izan da, egitarauan eta bereziki jaietan kirol-ekintzaren bat antolatu duten **elkartee**k **betetako fitxan oinarritu gara**. Aipatu dugun fitxa Kirol arlotik diru-laguntzak jasotzeko “San Joanetako kirol-jardueraren memoria” inprimakia da. Inprimaki hori kirol-jardueraren bat antolatzen duen orok bete behar du ekintzaren diru-laguntza jaso ahal izateko. Beraz, atal honetan kirol-arlotik diru laguntza jaso duten kirol-jarduerak analizatu dira. Hala ere, ezin dira ekintza guztiak analisisian sartu, denek ez dutelako inprimakia bete txosten hau egin den epeetan. Horretaz gain, aipatu behar da, halaber, ekintza batzuetan informazio gehiago dagoela eta beste batzuetan gutxiago.

Jaietan kirol-jarduera asko antolatzen dira, gehienetan kirol-klubek edo elkarteek berek, edo horien laguntzarekin antolatutakoak. Festa egitarauetan kirol-jardunak sartzeak berarekin dakar eremu horretako balioek eta ereduak neurri handi batean baldintzatzea festen izaera, eta, bereziki emakumeen parte-hartzea.

Esandakoari eutsiz, **kirolaren egungo egitura kontuan hartzen bada, guztiz androzentrikoa dena, zaila izango da festetara sartzen diren kirol-jardunak kutsu hori ez izatea**. Festa, bizitzako beste eremu asko bezala, gizentasun “izaera” birsortzeko eta berresteko leku edo modua da. Zalantzarik gabe, jai gehienetan gizonak nabarmenago agertzen dira eta hori lotuta dago genero harremanak ulertzeko erarekin. Carmen Diezen<sup>13</sup> hainbat ikerlanek argi uzten dute kirolaren eta gizentasuna birsortzearen arteko erlazioa eta beharra. Hau da, gizentasunaren eredu agintzailea (lehiakortasuna, indarra, abiadura, bortizkeria, indibidualtasuna eta abar) beste gizonei erakusteko, birsortzeko eta berdinen onarpena lortzeko espazioak behar dira, eta kirola horietako bat da.

2023ko San Joanetan orokorrean honako kirol-motak identifikatu dira:

KIROL-MOTA	KOPURUA
Gimnasia erritmikoa	1
Futbol txapelketak	2
Saskibaloia	1
Mendi maratokia	1
Tenisa	2
Pentatloia	1
Txirrindularitza	1
Igeriketa	1
Xakea	1
Pilota (hainbat modalitate)	2
eskubaloia	2
Toka	1

<sup>13</sup> Diez Mintegui, C (2006) “Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad” Revista de Dialectología y Tradiciones populares, Uztail-abendua, LXI Bol. 2. zk.

Lehen azaltzen saiatu garen bezala, zerrenda honetako kirol gehienak historikoki gizonezkoen afizioekin eta gizontasunaren irudiarekin oso lotuta daudela esan dezakegu.


2023ko San Joan jaietan, **Kirol Departamentuko aurrekontutik doazen 9 kirol-jarduera antolatu dira.**

Taulan jasotako horiek dira antolatutako kirol jarduerak, baina analisi honetarako **lehenbiziko 4 jarduerak soilik sartuko dira**, hain zuzen ere, 4 hauek bete baitute diru-laguntzaren fitxa dokumentu hau itxi zen datarako.

JARDUERA
Areto-futbola
3x3 saskibaloia saria
Txirrindulari-lasterketa
Zesta-Punta txapelketa
Gimnasia erritmikoko urte amaierako erakustaldia
T3T Hiru tontorrek maratoia
Tenis txapelketako finalak
Pentatloia


## Partaidetzaren genero analisia

Dugun memoria fitxen araberrako informazioan oinarrituz, San Joan festetan kirol-ekintzetan **batez ere gizonezkoek parte hartu dute**. Gizonezkoen kopuru guztira 697 (% 72) izan da eta emakumezkoena 275 (% 28). 2018ko eta 2022ko datuekin alderatzen badugu, emakumeen parte hartzea igo da; 2018an emakumeen parte hartzea % 23 izan zen eta 2022an % 27. Hala ere, kontuan hartu behar da aurreko bi analisietan kirol gehiago aztertu zirela; beraz, konparaketa ez da egoera berdinetan gertatu.



Kirol-zerrendako ekintzak banan-banan hartzen baditugu, azterketan sartu diren 4 kiroleratik **2 bakarrik gizonentzako antolatu zen** (txirrindularitza eta zesta-punta) eta **beste 2ak mistoak izan arren gionezkoen parte hartzea askoz altuagoa izan zen** (areto-futbola eta 3x3 saskibaloia).

Ekintzetan parte hartzen dutenez gain, jarduera antolatzen dutenak ere kontuan hartu ditugu. Kasu honetan **antolatzaileen datuak parekideak** dira, % 43 emakume eta % 56 gizon egon dira antolakuntzan. Guztira 121 lagun egon dira kirol-jarduerak antolatzen 53 emakume eta 68 gizon.



Indarkeria matxistaren inguruan ez da inongo daturik jaso eta beste gai batzuen inguruan ere ez, hala nola, epaimahaiak. Baina aldiz, areto-futbola ekintzan bai azpimarratu dute beraien lana emakumeen parte hartzean eta ekintzan berdintasuna bultzatzeko; besteak beste, emakume erreferenteak erabiltzen dituzte, maila desberdin guztiak garrantzi berdina dute, nesken finala *prime time* ordutegian antolatzen dute eta, amaitzeko, berdintasuna bultzatzeko neurrien artean ez dituzte kontuan hartzen federatuak diren edo ez taldeak osatzeko.

Bestalde, 2023ko apirilaren 27an, mahai-inguru bat egin zen Jabetze Eskolaren barruan, Kirolak Departamentuaren laguntzarekin: “Emakume Kirolariak: Esperientziak, lorpenak eta Erronkak”. Tolosako eta Tolosaldeko kirolariek parte hartu zuten: Ainhoa Artolazabal (txirrindularia), Irene Caminos (triala), Nerea Izagirre (futbola), Eukene Larrarte (txirrindularia), Nerea Perez (arrauna) eta Ane Lasa (Aiztondo NKTren bultzatzailea), Patri Espinar gidaria izan zen.



## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Jaietan berdintasuna txertatzeko esparru irekia dela esan daiteke, behintzat udal arloari dagokionez; hala ere, esparru horretan aurrerapenak islatzea bezain garrantzitsua da proposamenak jasotzea.

### *Aurrerapenak kirolean*

- Kirol-jarduerak antolatzeko orduan, antolakuntza parekidea da.
- Areto-futboleko hainbat ekintza burutu dituzte haien ekintzetara emakumeak hurbiltzeko: emakumeei federatuta egotea ez eskatzea, herriko emakume kirolariek edo emakume taldeekin harremanetan jartzea ekintzara gonbidatzeko...
- Kirol Departamentuak gaiarekiko sentsibiltate handia adierazten du. Bide beretik, elkarlanerako konpromiso du.
- Jabetze-eskolan gaia lantzeko tartea eskaintzea.

### *Proposamenak kirolean*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>14</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Horren estereotipatuak ez dauden beste kirol edo jarduerak (piraguismoa, orientazio probak...) antolatu jaietan gutxiago erabiltzen diren eremu edo momentuetan (erreka, inguruko mendiak, probak gauzez egin...). (P)<sup>15</sup>
- Jaietan presentziarik ez duten kirol-jarduerak jaietan ekintzak antolatzera animatu; hala nola, kiroldegian egiten diren beste kirol batzuk (spinning, aerobic, edo bestelako kirolak –arrauna, boleibola eta abar). (P)<sup>16</sup>
- Kirolaren eremuan azterketa sakonagoa eta kualitatiboa egin, jaien/kirolen eta emakumeen arteko harremana ezagutzeko eta etorkizunerako neurriak identifikatu ahal izateko.
- Kirol-arloan diziplina ezberdinetako emakume kirolariak ikusarazteko ekintzak antolatu jaietan. (P)<sup>17</sup>
- San Joanetan kirol-jarduerak antolatzen dituzten eragileak berdintasunean eta indarkeria matxistan sentibilizatu. Horrela, indarkeria identifikatzeko tresnak emango zitzaizkien, baita irizpideak ere beraien ekintzetan berdintasuna bultzatzeko neurriak identifikatzen joateko.

<sup>14</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>15</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.2 C (13. orria)

<sup>16</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.2 A (13. orria)

<sup>17</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.1 A (13. orria)



## 8.INDARKERIA

### Sarrera

Indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan: sexu erasoko kasuek egoeraren larritasuna agerian uzten dute, eta erakunde publikoek beraien ardura hartzen joan dira. **Tolosa aitzindaria izan da gai honetan, eta indarkeria sexista testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du; jaietan.**

Bi lan-ildo nagusi garatu izan dira: **sentsibilizazioa eta, eraso kasuetan, erantzuna**. Azken hau protokoloaren bitartez arautu da. Behatokiak ere bi atal hauek aztertu ditu, ondorengo aldagaien bitartez:

### *Joka sano! Tolosak, ezetz! #LIBRENonahi* kanpainak eta beste jarduera batzuk

2023. urteko **indarkeria matxistaren kontrako kanpainak** ekintza ezberdinak izan ditu. Hona hemen egin denaren zerrenda:

- *#LIBRENonahi* kalkomaniak jaietako hainbat eremutan banatu ziren: kuadrilla eguneko bazkarian, eraikin publikoetan (Kultur Etxea, UDATE, Gizarte Zerbitzuak, Musika Eskola, Euskaltegia...).
- Gazteria Departamentuak antolatuta, urtero bezala, AI LAKET elkarteak gazteekin egiten zuen esku-hartzea prestatu zuen.
- Joka Sano kartela 24 orduko telefonoarekin hainbat lekutan zabaldu zen: herriko panel informatiboetan, taberna eta saltokietan, panel elektronikoetan, Leidorreko bideoan.
- Egitarauko eskuorri handian indarkeria matxistaren aurkako mezuak eta udaltzaingoaren telefonoa jarri ziren
- Bigarren urtez, tabernariei alkateak sinatutako gutun bat bidali zitzaien, eraso sexista baten aurrean jarraitu beharreko gomendioekin eta aurten Gune Morearen berri emanez.

Tolosako Udalak ibilbide luzea du jaietan indarkeria sexistaren kontrako jarrera erakusten eta sentsibilizazio kanpainak abiatzen, San Joan jaietan zein Inauterietan. Eta Tolosak, EZETZ!/Joka Sano kanpaina konpromiso horren erakusle garbia da. Horretaz gain, San Joanetako prentsa agerraldian alkateak esandako hitzak eta gaiari jarritako arreta azpimarratu behar dira.



Kanpaina horiez gain, azken urteetan **indarkeria sexistari aurre egiteko beste lanketa-era batzuk ere sozializatzen ari dira**. Joan den apirilean, urtero legez, “**Autodefentsa Feminista**”, antolatu zen Jabetze Eskolaren baitan, Gazteria eta Gazte Topagunerekin elkarlanean, kasu honetan 11-14 urteko neska gazteentzat.



## Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa

2017an “Udal-zerbitzuen betebeharrak” izeneko protokoloa jai testuingurura egokitzea izan zen. Geroztik protokoloa indarrean egon da, eta une oro behar izan duen egokitzapen txikiak egin zaizkio. **Protokoloan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar diren azaltzen da** eta erantzukizun teknikoa Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen artean partekatzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenez, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. San Joanetan, udaltzaingoko informazio jaso ondoren, alkateari, jaietako eta berdintasuneko zinegotzietatik gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da.

Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udala eta Mugimendu Feminista eta Tolosako emakume elkartearen artean deialdi bateratu bat egingo da. Eta San Joan jaien testuinguruan gertatzen dela kontuan hartuta, jaietako eragile guztiekin koordinazioa mantenduko da: zinegotzi eta teknikariek informazio jasoko dute eta jaietako eragile sozialei helaraziko diete, jaietako teknikariaren laguntzarekin (eskopetariak, kuadrillako ordezkariak, Bordon-dantzariak, musika bandakoak, txosna gunekoak, kiroltako ordezkariak...). Kontzentrazioa eraso gertatu ondorengo 24 ordura egingo da, 19:00tan udaletxe aurrean.

**Berriazko protokolo horren bitartez, eragileen jarduna arautu da:** udal eragile, Mugimendu Feminista eta emakume elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena. Protokoloa egiteko orduan, Mugimendu Feministako eta emakume elkarteetako kideek ere parte hartu dute, eta beraz, adostasun zabal batekin egin dela esan daiteke. Berdintasun-teknikariek prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egiten dute.

**Protokolo hori onartzeak jaietan indarkeria sexistaren gaian balio handiko urrats bat gehiago ematea esan nahi du:** udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasuneko gaia dela aitortuz. Horregatik, garrantzitsua da protokoloa onartu izanari buruzko komunikazioa ere egitea. Interesgarria litzateke joera hau mantentzea eta hurrengo urteetan ere, gogorapen moduan protokoloaren sozializazioan sakontzen jarraitzea.

**2023ko San Joanetan ez da sexu eraso salaketarik egon**, eta beraz, protokoloa ez da aktibatua. Ondorioz, San Joanetan ez dago aurtengo protokoloaren baloraziorik. Andragoran zegoen Puntu Morea zerbitzuari dagokionez, inork ez zuen honen eskaerarik egin.

Protokoloaz gain, San Joanetan **Gune Morea jarri zen**. Gune Moreak arreta zerbitzua ematera mugatu zen eta Andragora, Emakumeen Etxean kokatuta egon zen. Bere ordutegia, Inauterienarekin alderatuta, 3 ordu gehiagokoa izan zen, 24:00-05:00. Gune Morea emakumeen aurkako erasoak artatzera bideratuta zegoen, baina LGTBIQ pertsonen aurkako erasoak ere artatzeko prestatuta zeuden profesionalak zeuden. Nolabait, mota guztietako indarkeria matxistako erasoak artatzeko gaitasuna zegoen.

Urtero egiten den Gizarte Zerbitzuen eta Udaltzaingoaren arteko koordinaziora Gune Morea batu zitzaion. Horretaz gain, Itaia Emakumeon Erakunde Sozialistarekin bilera bat egin zen haien protokoloa eta esku-hartzeak ezagutzeko eta oinarritzko koordinazioa izateko zerbitzuak emateko garaian; hala ere, erakunde horrek ez du loturarik nahi izan udal-erakundeekin.

Bestalde, Kuadrilla Eguneko antolatzaileekin ere bilera bat egin zen udalaren protokoloa azaltzeko eta udalaren telefono-zenbakia emateko. Honetaz gain, antolakuntzak Kuadrilla Eguneko ticketen salmentarekin batera Itaiaren protokoloaren esku-orria banatu zuen erakundearen eskaeraren ostean. Kuadrillaren Egunean ez zuten inongo erasorik identifikatu. Kuadrilla antolatzaileek, gaiari dagokionez, hainbat gabezia identifikatu zituzten. Adibidez, egoera larri baten aurrean nola erantzun beharko luketen ez zuten jakingo eta irizpide zehatzak izango dituen gida bat eskertuko lukete edo udaltzaingoaren telefonoaz gain, beste zerbitzu baten telefonoa, adibidez Gune Morearena, Kuadrillen Eguneko plazaraino hurbilduko litzatekeena.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Aipatu bezala, eraso sexisten esparruan jaietan udal-politika nahiko egonkortuta dago, sensibilizazioaren alorrean bereziki. Erasoen aurrean eman beharreko erantzunari dagokionez, maila formalean lortutako adostasuna praktikan ere islatu beharko litzateke, baina hau ez dugu ikusiko eraso kasu berririk egon arte.

Ondorengo lerroetan aurrerapenak eta etorkizunerako proposamenak azaltzen dira:

### Aurrerapenak

- *Tolosak, EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano kanpaina, #LIBRENonahi* egonkortuta dago eta programaren euskarri ezberdinetan agertzen da, dagoeneko jaietako paisaian parte da.
- Udal-protokoloak, jaien testuingurura egokituak, indarrean jarraitzen du.
- Tolosako tabernariekin, bigarren urtez, berariazko lanketak egin dira beraien lantokietan erasoak identifikatzen laguntzeko eta horren aurrean zer egin jakiteko aholkuekin (P)<sup>18</sup>.
- Autodefentsa feministako ikastaroak egonkortu dira, eta urtero Jabetza Eskolako eskaintza egiten da eta berritzeko eta publiko berriei egokitzeko esfortzua egiten da;

<sup>18</sup>Ez da berez planean aipatzen den ekintza zehatz-mehatz, baina ekintzarekin bat egiten duen ekintza bat da. Planean jasota: 4. Ardatza: *Denok goza dezagun*, indarkeria matxistatik gabeko jaiak, 4.2 arloa, Helburua 4.2.3 C (18. orria)

besteak beste, 2024an neska gazteentzako Autodefentsa Feminista lantegia eskainiko da.

- Puntu Morea ezarri da eta ordutegi zabala eskaini du, aldi berean udal-zerbitzuekin koordinazioan egon da.

## Proposamenak

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerarekin lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>19</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira (“P” hizkiarekin identifikatuta).

- Jai bileratan parte hartzen duten elkarteei indarkeria matxistaren gaia haien talde eta festa espazioetan lantzea eskaini, eta aholkularitzaren eta bidelaguntzaren beharra dutenak identifikatu. (P)<sup>20</sup>
- Tolosako txosnekin berariazko lanketak egin beraien eremuetan erasoak eta gai honetan drogek duten eragina identifikatzen laguntzeko eta horren aurrean zer egin jakiteko. (P)<sup>21</sup>
- Eraso matxisten kontrako protokoloa jai bileretan eta jaiak antolatzeko bestelako bileretan aurkeztu eta azalduko da urtero. (P)<sup>22</sup>
- Jaietako eragileei indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza eman, erasoak identifikatzeko eta eraso baten aurrean baliabideak izateko. Urtero erabaki daiteke zer eragilek jasoko dute prestakuntza. (P)<sup>23</sup>
- Gai sakontzen joateko beste formula batzuk arakatu eta esperimentatu.
- Gaia lantzeko garatu den komunikazio estrategiarekin jarraitu.

<sup>19</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>20</sup> Planean jasota: 4. Ardatza: *Denok goza dezagun*, indarkeria matxistarik gabeko jaiak, 4.2 arloa, Helburua 4.2.3 C (18. orria)

<sup>21</sup> Planean jasota: 4. Ardatza: *Denok goza dezagun*, indarkeria matxistarik gabeko jaiak, 4.2 arloa, Helburua 4.2.3 A (18. orria)

<sup>22</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 arloa, Helburua 2.1.2 C (18. orria)

<sup>23</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 Arloa; Helburua 2.1.3 C (11. orria)

## 9. BALORAZIO OROKORRA

Hurrengo lerroetan, txosten honetan zehar aztertutako gaiak jasoko ditugu baina modu laburrean eta etorkizunari begiratzeko gogoarekin.

Aurtengo analisisian, **komunikazioari** dagokionez ez da atzerapausorik eman, aurreko urteetan bezala. Momentu honetan, komunikazioan berdintasun irizpideak bermatzen dira, eta, irizpideak sistematizatuta daude. Ildo beretik, **indarkeria kanpainak eta protokoloak** daude eta urtero balorazio positiboa jasotzen dute. Nolabait, **Udalak komunikazioan eta indarkerian berdintasun irizpideak eta ikuspegia integratuta du, eta praktketan nabari da.**

Aurten, antolaketari dagokionez, **Kuadrila Eguneko antolaketa** aztertu dugu. Parte hartzean eta antolaketan berdintasuna bultzatzeko irizpiderik ez egon arren, aurten **berdintasuna bermatu da**. Nesken parte hartzea aktiboa da, erabaki guneetan ordezkatuak daude, eta, dirudienez, lanak ez dira sexuaren arabera banatu.

Jakina da Udalak irizpideak izan badituela **txupinazoa** berdinzalea izan dadin. Hala ere, aurten txupinazoa gizon batek bota du, nahiz eta omendutako taldea mistoa izan (Gainditzen elkarte). Txupinazoa berdinzalea dela ziurtatzeko, garrantzitsua da Udalak indarrean dituen irizpideak jarraitzea eta komeni da irizpide hauek sozializatzea eta omenduekin konpartitzea.

Arestian aipatutakoez gain, **Musika arloan**, Udalak tresna bat du emakumeen oholtzaratzea bultzatzeko. Azkenengo urteetan gorabeherak izan arren, bide onean goazela esan dezakegu. Aurten, **emakume musikariak %40** izan da eta 2022ko langa gainditzea lortu dugu (%36). Ondorioz, aurtengo datuei erreparatzen badieogu, *Udal tresnak* jasotzen dituen **helburuak bete dira**, eta goreneko helburuetara (%50-%50) heltzeko gero eta gertuago gaudela esan daiteke.

Jaien testuinguruan **kiroletan gizonezkoak nagusi dira** oraindik. Kirol batzuetan, Futbol Aretoan adibidez, saiakerak egin dira emakumeen parte hartzea eta ikusgarritasuna handitzeko, hala ere, oraindik asko dago egiteko. Kirol elkarteek eta Udalak emakumeen parte hartzea bultzatzeko gaitasun handia dutela pentsatzen dugu; esate baterako, emakumetasunarekin lotutako kirolak antolatu daitezke, hala nola, zumba, patinajea, aerobic, gimnasia erritmikoa, eta abar. Edo, bestela, generizatuak ez dauden kirolak bultzatu daitezke, esate baterako, nordic walking, orientazio probak, kayak, eta abar.

Behatokiak 5 urtez aztertu ditu San Joanak (2017, 2018, 2019, 2022, 2023). Dagoeneko ibilbide bat egin da eta urte hauetan hainbat gaitan berdintasunak izan dituen aurrerapausoak ikusi ditugu, hala nola komunikazioan berdintasunaren sistematizazioan, emakumeen parte hartzearen hazkundean (alguazila, eskopetarietan emakume kapitain gehiago, txupinazoan emakumeen presentzia eta abar) edo emakumeen oholtzaratzerako eta txupinazoa berdinzaleagoa bihurtzeko tresnen eragina jhanditzean. Hala ere, hainbat arlotan aurrerapausoak finkatu diren arren, beste arlo batzuetan aurrerapausoak ez dira horren irmoak izan, eta, urtearen arabera oszilazioak daude, adibidez, emakumeen ikusgarritasuna eta parte hartzea musikan, kirolan, txupinazoan edo beste alor batzuetan.

Jaietan berdintasunaren alde ematen diren urratsak txikiak dira gehienetan eta horrela adierazi du maiz Behatokiak. **Esperientziak esaten digu jai feminista batzuen aldeko ibilbidea aldaketa txikiz osatutako eraldaketa dela**. Beraz, eraldaketaren tamainak ez luke balorazioa mugatu beharko. Dena dela, kezkarria da hainbat eraldaketa ezin finkatzea, nolabait **berdintasuna bultzatzeko tresnak sortzeak ez du ziurtatzen aldaketa izango denik, ezta hau finkatuko denik ere**. Dirudienez, tresna hutsak ez du bere eraginik tresna hauen sozializatorik gabe ezta bere aplikazio zorrotzik gabe.

## 10.GEHIGARRIAK

Musika aztertzeko erabili den taula:

SAN JOANAK 2023	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua	12	11	23
Tolosa Kantari			0
BatuMore batukada feminista	27		27
Iratzar taldea, erromeria	2	4	6
Mulanbo perkusio taldea, kalejira	6	10	16
Fresa Morango, kalejira	2		2
Bengo eta Etxepe, kontzertua		2	2
Jainekin, txarangaren kalejira		10	10
Muare taldearen kontzertua	2		2
Txistulari kontzertu berezia		7	7
Puro Relajo		5	5
Et Incarnatus orkestraren solstizio kontzertua	14	12	26
San Joan zortzikoa, Udal Txistulari Banda		6	6
Tolosako Udal Musika Banda, kalez kale	15	30	45
Eire + J. Martina	2	1	3
La Jodedera		4	4
Tolosako dultzaineroak	1	3	4
Tolosako Udal Txistularien Banda		6	6
Tolosako eta Iruñeko Udal Txistulari Banda		10	10
Tolosako Udal Musika Banda	15	30	45
Txaranga kalez kale	1	9	10
Muxutruk	2	3	5
Dantzaldia Joxe Mendizabalekin		1	1
U100U Verde Prato	1		1
U100U Mirua	2	1	3
U100U Elene Arandia	1		1
U100U Hodeiertz Abesbatza	15	10	25
U100U musikariak	3	7	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>123</b>	<b>182</b>	<b>305</b>

## PROIEKTUAREN LIDERGOA:




## PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA:



[www.farapi.com](http://www.farapi.com)

 943 00 35 85

 [info@farapi.com](mailto:info@farapi.com)

 Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa  
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)